



## **2016KO IRAILAREN 5EAN BATZARRAREN OHIKO BILKURAKO AKTA.-**

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2016ko irailaren 5ean, 19:05etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

### **BERTARATUAK:**

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua  
ALBIZTURKO UDALA (%0,53): Marixabel Matxinandiarena Arrospide  
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Aguirrezabala  
ALKIZAKO UDALA (%0,61): Jon Umerez Urrezola  
ALTZOKO UDALA (%0,65): Josu Astrain Azkona  
ANDOAINGO UDALA (%23,92): Ana Carrere Zabala  
ANOETAKO UDALA (%3,09): Aratz Luisa Urkola  
ASTEASUKO UDALA (%2,49): Pili Legarra  
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre  
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika  
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala Ezkurdia  
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76): Bakarne Otegi Jauregi  
IRURAKO UDALA (%2,73): Jose Ramon Epelde Irizar  
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasqueta  
ORENDAINGO UDALA (%0,32): Gorka Egia Arregi  
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria  
VILLABONAKO UDALA (%9,61): Ibon Ariznabarreta Urdampilleta  
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

### **ETORRI EZ DIRENAK:**

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,54)  
AMEZKETAKO UDALA (%1,58)  
BALIARRAINGO UDALA (%0,21)  
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42)  
ELDUAINGO UDALA (%0,39)  
GAZTELUKO UDALA (%0,28)  
HERNIALDEKO UDALA (%0,57)  
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61)  
LIZARTZAKO UDALA (%1,05)  
OREXAKO UDALA (%0,20)

### **GAI ZERRENDA**

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2016ko ekainaren 20ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. Lehendakariaren Ebazpenen berri eman: LE20160610.045tik LE20160811.058ra.**
- 3. 2015 ekitaldiko aurrekontuko Kontu Orokorren onespeneren proposamena.**

4. **Tolosaldeko Mankomunitatea eta UTE Tolosaldearen artean izenpetutako kontratuaren aldaketa proposamena, hiri hondakinen eta garraio zerbitzuaren ingurukoa: Andoain eta Villabonako zabor bilketa zerbitzuen aldaketa.**
5. **Bestelako berri ematea:**
6. **Kontratazioak: Hiri hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko hezitzaileen zerbitzua.**
7. **Galde-erreguak.**

Mankomunitatearen Idazkari den Jose Luis Unanuek eman dio fede ekintzari, Maider Aguado Mankomunitateko kontuhartzailea eta Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Amezketa, Gaztelu, Lizartza eta Orexako ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetoako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

AMEZKETAKO UDALA: Ordezkarria, Josu Amilibia Alsua  
GAZTELUKO UDALA: Ordezkarria, Josu Amilibia Alsua.  
LIZARTZAKO UDALA: Ordezkarria, Josu Amilibia Alsua.  
OREXAKO UDALA: Ordezkarria, Josu Amilibia Alsua.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

### **1. 2016ko ekainaren 20ko Batzarraren Akta onartzea.**

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

### **2. Lehendakariaren Ebazpenen berri eman: LE20150610.045tik LE20160811.058ra.**

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20160610.045	LE20160627.050	LE20160729.055
LE20160614.046	LE20160629.051	LE20160729.056
LE20160614.047	LE20160630.052	LE20160804.057
LE20160617.048	LE20160721.053	LE20160811.058
LE20160614.049	LE20160721.054	

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

### **3. 2015 ekitaldiko aurrekontuko Kontu Orokorraren onespeneren proposamena.**



Ikusirik 2016ko ekainaren 20ko Batzorde Iraunkorrean, Mankomunitate honetako Kontuen Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman ziola 2015eko ekitaldiko Kontu Orokorrari, jendaurrean erakustea onartuz.

Ikusirik iragarkia 2016ko ekainaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan zela, eta jendaurrean egon den epealdian ez dela inolako alegaziorik aurkeztu.

Kontuan izanik 2016ko ekainaren 20ko Kontuen Batzorde Bereziak onarturiko diktamena.

Beraz, eskatutako azalpen guztiak eman ondoren, Batzarrak, ahobatez,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** 2015eko ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorraren Kontu Orokorra onartzea.

**BIGARRENA.-** Kontu Orokorra Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esku jartzea bere kanpo-fiskalizaziorako, eta hari dokumentuaren kopia bat bidaltzea, hala eskatzen duenean.

#### **4. Tolosaldeko Mankomunitatea eta UTE Tolosaldearen artean izenpetutako kontratuaren aldaketa proposamena, hiri hondakinen eta garraio zerbitzuaren ingurukoa: Andoain eta Villabonako zabor bilketa zerbitzuen aldaketa.**

Andoaingo udalak eta Villabonako udalak eskatutako hondakinen kudeaketa eta bilketa sistema berrien ezarpenak Tolosaldeko Mankomunitatea eta UTE Tolosaldearen artean izenpetutako kontratuan aldaketak egitera behartzen dute.

Ondoren, udalekin adostu diren aldaketen berri eman du teknikariak:

1.- Andoaingo udalerrian:

- Lurrazpiko edukiontzi guztiak erretiratzea.
- Etxeetan eta sortzaile bereziek sortutako papera, ontzi arin, errefusa eta organikoa albo kargako edukiontzien bitartez jasotzea.
- Beiraren bilketarako lurrazpiko edukiontzien ordezkapena iglu motako edukiontzien bitartez egitea.
- Albo kargako sistemak eskatzen duen lurreko poltsen bilketa zerbitzua egitea.

2.- Villabonako udalerrian:

- Etxeetako organikoa, ontzi arin eta errefusa albo kargako edukiontzien bitartez jasotzea.
- Albo kargako sistemak eskatzen duen lurreko poltsen bilketa zerbitzua egitea.



- Sortzaile berezien errefusa eta kartoia atez-ate jasotzea, egungo bilketa egun berdinetan.
- Sortzaile berezien organikoa eta ontzi arinak kalean ezarritako albo kargako edukiontzien bitartez jasotzea.

Eskaera horien aurrean, teknikariak aurkeztu ditu txosten tekniko eta ekonomikoak, non xehetasunez eskatutako aldaketan ezaugarriak jasotzen dira.

Guzti hau kontutan harturik, Andoain eta Villabonako udalerriekin adostutako zabor bilketa zerbitzuaren aldaketak UTE Tolosaldea enpresarekin izenpetutako kontratuan 238.019€/urtean (BEZa barne) jetsiera dakar.

Teknikariak aipatzen du ere, aldaketan ez dela aurreikusi arrandegiek sortutako hondakin organikoaren bilketa, eta kontutan izanik hondakin horren berezitasunak (lixibiatua eta edukiontzi marroietan botaz gero sortu dezakeen usain txarra) komenigarria kontsideratzen du atez ateko bilketa bat, eguneroko maiztasunean, jai egunetan izan ezik, egitea. Beraz, aipatutako zerbitzuaren kenkariari arrandegitako bilketan sortuko den gastua gehitu beharko zaio.

UTE Tolosaldeak aldaketaren aurrean aurkeztu duen idatziaren berri eman da, non egokitzapenean sortu daitekeen bilketa-pertsonalaren murrizketaren kostu ekonomikoa Mankomunitatearen gain hartzea eskatzen du. Honen aurrean, kontratua arautzen duen Baldintza pleguek jasotzen dute Tolosaldeko Mankomunitateak ez duela erlazio juridikorik, lanekorik edo bestelako erlazorik edukiko kontratistaren langileekin, ez kontratua indarrean dagoenean, ez amaitzean, eta kontratistaren kontura izango direla kontratu hau dela eta sor daitezkeen obligazio, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

Lehendakariak adierazten du kontratu aldaketak langilegoarengan ekar dezakeen "koste morala" aldaketa bultzatzen duen udalengain izan behar duela.

Beraz, eskatutako azalpen guztiak eman ondoren, Batzarrak, ahobatez,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrien eremuan hiri hondakinen bilketa eta garraio zerbitzu publikoko kudeaketa-kontratuaren aldaketa-espeditentea onartzea, Andoaingo udalerrian hondakin organikoa, errefusa, papera eta ontzi arinak albo kargako sistemen bitartez bilduaz eta Villabonako udalerrian, sortzaile bereziek sortutako kartoia eta errefusa izan ezik, gainerako hondakin organiko, errefusa eta ontzien bilketa albo kargako edukiontzien bitartez jasoaz.

**BIGARRENA.-** UTE TOLOSALDEArekin izenpetutako kontratua aldatzea, txostenaren arabera, non aldaketaren baldintzak jasotzen diren. Kontratu honen parte bezala proposamena eransten da.

**HIRUGARRENA.-** Arrandegitako atez-ateko bilketa kostea kalkulatzeko eta txostenean jasotako 238.019€ren jetsieraren arteko diferentzia aplikatzea kontratuan, BEZa barne.

**LAUGARRENA.-** Aldaketaren hasiera data 2016ko urriaren 12an finkatzea.



**BOSTGARRENA.-** Hasierako kontratua indarrean egongo dela xedatzea aldaketa honek modifikatzen ez duen bitartean.

**SEIGARRENA.-** Aldaketa gastua 2016ko Aurrekontu Orokorreko Proposamenean kontuan hartzea.

**ZAZPIGARRENA.-** Kontratuaren amaiera jatorrizkoarena izango dela adieraztea.

**ZORTZIGARRENA.-** Lehendakariari eskumena ematea xehetasunezko aldaketak egin ahal izateko, aldaketa behin betiko onartzeko eta kontratua gauzatzeko, beti ere kontu emanez Batzarrari.

## **5. Bestelakoen berri ematea: Kontratazioak: Hiri hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko hezitzaileen zerbitzua.**

Teknikariak adierazi du Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrak, hiri hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko asmoz, hezitzaileen zerbitzua kontratatzeke Baldintza pleguak onartu dituela, eta esleipen prozesua, prozedura ireki bidez izango dela.

Zerbitzuan bi hezitzaile kontratatzea aurreikusten da eta eskualde mailan ezartzen diren zabor bilketa sistema berrietan laguntzaile gisa egongo dira, baita ere egungo bilketa sistemetan, udalerrietan, hondakinen kudeaketa eta sailkapen arloan arazoak sortzen diren lekuetan ere.

## **6. Galde-erreguak.**

### **6.1.- Zabor bilketa zerbitzuaren azterketa tekniko-ekonomikoa.**

Aurreko Batzar batean onartu bezala, eskualde mailan hurrengo urtean kontratatu beharreko zabor bilketa zerbitzu berriari begira, Spora enpresa azterketa tekniko eta ekonomikoa egiten ari da. Lanketa honen barruan gaur egun "altako garraio" gisa Tolosaldeko Mankomunitateak jasaten duen koste ekonomikoa kalkulatzeko ari da ere, honen eragina aztertu ondoren beharrezkoak diren erabakiak hartu ahal izateko.

Gaiaren berri eman da.

### **6.2.- GHKrekiko alegazio eta auzien egoera.**

Lehendakariak jakinarazten du, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak martxoaren 22an eta uztailaren 28ko Batzarretan hartutako erabakien aurka mankomunitate honek jarritako inpugnazioak tramitera onartuak izan direla eta Gipuzkoako Fiskalaren txostena aldekoa izan dela.

Jakinazten du ere, mankomunitate honek Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrek, 2016ko uztailaren 28an, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen diseinu, eraikitze, finantzaketa, eragiketa eta mantenuaren lizitazioa arautzen duten pleguen onarpen akordioa inpugnatu duela. Orain, Foru Aldundiko zerbitzu juridikoen erantzunaren zain egon behar dugula jakinarazten du ere.

### **6.3.- Edukiontzien karakterizazioak.**

Lehendakariak adierazten du aurreko urtean bezala, aurten ere eskualdeko herrietan hainbat edukiontzien karakterizazioak egin direla. 2015 urtean egin ziren karakterizazioak errefusarenak bakarrik izan ziren bitartean, aurten herri batzuetan materia organikoa eta ontzi arinen karakterizazioak egin dira ere. Pendiente gelditzen dira Andoaingo 4 karakterizazio, organikoaren bilketa sistema ezartzen denean egiteko, ezarri aurretik eta ondoren alderaketa egin ahal izateko.

Orokorrean esan behar da errefusa edukiontzietan birziklagarriak diren materialen portzentaiaren igoera bat sumatu dela.

Ontzi arinen kasuan, errefusa edukiontzia itxita duten udalerrietan "inpropioak" diren hondakinen portzentaia haundiagoa da.

Organikoaren kasuan atez-ateko bilketa duten herriek daude %5eko inpropioen kopuruaren azpitik edo gertu. Edukiontzia bitartez jasotako organikoan inpropio kopuru haundiagoa sumatu da egindako karakterizaziotan.

Udal bakoitzeko karakterizazioen txostenak egun gutxi barru bidaliko dira mankomunitatetik.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko zortziak eta hamarrean (20:10), Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

**LEHENDAKARIA**

**IDAZKARIA**



TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA



TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA





TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA



TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA



TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA